



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Arretako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2025eko Uztaila

AEMPS: GIZA ERABILERAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNAREN BULETINA	1 Jarraitu irakurtzen
AEMPS-REN SEGURTASUN-OHARRA Semaglutidarekin tratatu diren pazienteek oso ezohiko begietako ondorio kaltegarria izan dezakete	2 Jarraitu irakurtzen
EMA-REN OHARRA, AZITROMIZINAREN ERABILERAN EGIN BEHARREKO ALDAKETEI BURUZ	3 Jarraitu irakurtzen
ELGORRIA, TRANSMISIO-ARRISKU HANDIA DUTEN BIZTANLEETAN	4 Jarraitu irakurtzen
HOBEKUNTZAK PRESIDEN: TRATAMENDUAK JASOTZEKO EPEA	5 Jarraitu irakurtzen
2025-2027 PRAN BERRIA	6 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK - INFAC Buletin Berria: “Adinekoen insomnioa maneiatzea” - EAEko Farmakozaintzako Buletin berria - Infografia Berria Espainiako Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Elkartearen (SEFAP) blogean Ba al dakizu zer den aknea eta nola tratatzen den? - ADHN tratatzeko medikazioak dituen albo-ondorioak lehen mailako arretan maneiatzeko gida - Giza Erabilerako Medikamentuen Hornidura Bermatzeko Plana (2025-2030)	7 Jarraitu irakurtzen
ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK	8 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA - BERREZARPENAK	9 Jarraitu irakurtzen
ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETAKE ZENTROETAKO SENDAGAIEN KATALOGOAN	10 Jarraitu irakurtzen

1 AEMPS: GIZA ERABILERAKO MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNAREN BULETINA

2025eko ekainean, [giza erabilerako medikamentuen segurtasunari buruzko apirileko buletina](#) argitaratu da, eta farmakozaintzako datuen aldizkako ebaluazioaren ondoriozko segurtasuneko informazio berria jaso da bertan, bai eta Agentziaren webguneko beste argitalpen batzuk ere. Ebaluatu ditugun medikamentuetatik, hauexek dira nabarmentzekoak: oxitetraziklina klorhidratoa, hidrokortisona azetatoa, B polimixina sulfatoa (belarrietarako edo begietarako tantak, esekidura eta ukendua); etonogestrela; hidrokortisona; loxapina eta oxkarbazepina.



[HASIERA-ra Itzuli](#)

2 AEMPS-REN SEGURTASUN-OHARRA

Semaglutidarekin tratatu diren pazienteek oso ezohiko begietako ondorio kaltegarria izan dezakete

Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) jakinarazi du aurreko neuropatia optiko iskemiko ez-arteritikoa izateko arriskua dutela semaglutidarekin (Ozempic®, Rybelsus® eta Wegovy®) tratatu diren pazienteek, zeina 2 motako diabetes mellitus eta obesitatea tratatzeko erabiltzen baita.

Oso gutxitan agertzen da, 10.000 pertsonatatik 1ek izan baitezake, saiakuntza klinikoaren datuen arabera. Bat-batean ikusmena galtzen badu pazienteak, azterketa oftalmologikoa egin behar da eta, aipatutako neuropatia dagoela berresten bada, tratamendua eten beharko da.

Informazio gehiago nahi baduzu, 2025eko ekainaren 9an argitaratutako segurtasun-oharra kontsultatu dezakezu ([estekan sakatu](#)).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

3 EMA-REN OHARRA, AZITROMIZINAREN ERABILERAN EGIN BEHARREKO ALDAKETEI BURUZ

Medikamentuen Europako Agentziak (EMA) gomendatu du aldaketa batzuk egitea azitromizinen erabileran. Zentzuz erabiltzeko eta mikrobioen aurkako erresistentziak saihesteko asmoz, ahotiko zein zain barneko azitromizinarako gomendatutako dosifikazioa harmonizatu du eta horren erabilerak berrikusi ditu. Ahotiko dosifikazioari dagokionez, gomendatzen da honako hauen gaineko indikazioak kentzea, arrisku-onura erlazioa negatiboa izateagatik: akne arrunt moderatua, *Helicobacter pylori*ren desagerrarazpena, eta asma eosinofilikoaren nahiz ez-eosinofilikoaren exazerbazioen prebentzioa. [Klikatu hemen](#).

Informazio horrekin batera eskuragarri dagoen [eranskinean](#) jaso dira proposatu diren harmonizatutako dosifikazioak.

Changes to the use of antibiotic azithromycin

23 May 2025

Recommendations aim to optimise use and minimise development of antimicrobial resistance

News

Human

Referrals

[HASIERA-ra Itzuli](#)

4 ELGORRIA, TRANSMISIO-ARRISKU HANDIA DUTEN BIZTANLEETAN

Elgorria, transmisio-arrisku handia duten biztanleetan Osasun-langileentzako osasun publikoko gomendioak

Osasun Sistema Nazionalaren Lurralde Arteko Kontseiluaren Osasun Publikoko Batzordeak ondoren adierazitako [dokumentua](#) onetsi du. Helburua da elgorriak dakartzan arriskuen gaineko kontzientziazioa sortzea, Espainian Elgorria eta Errubeola Desagerrarazteko Plan Estrategikoaren (2021-2025) esparruan, bai eta osasun-langileei zuzendutako gomendio zehatzak egitea ere, Espainian desagerrarazpenak bere horretan jarraitzen duela bermatze aldera.

Honako infografia hauek jaso dira dokumentuaren eranskinean: **Elgorria izan daiteke!** eta **Nola jokatu kasu susmagarrien aurrean?**



[HASIERA-ra Itzuli](#)

5 HOBEEKUNTZAK PRESBIDEN: TRATAMENDUAK JASOTZEKO EPEA

Azalpen-ohar bat argitaratu berri da intraneteko “Presbide” atalean, Presbiden tratamenduak jasotzeko epeari buruz egin ohi den galderari erantzuteko.

- **Preskripzio kronikoa:** jasotzeko aurreikusitako hurrengo data baino **15 egun** lehenagotik egongo da eskuragarri medikazioa.
- **Eskatu ahalako preskripzioa:** jasotzeko aurreikusitako hurrengo data baino **10 egun** lehenagotik egongo da eskuragarri medikazioa.
- **Preskripzio akutua:**
 - a) Preskripzioko tratamenduaren iraupena 10 egunekoa edo gutxiagokoa bada: **10 egunez** jaso ahalko da medikazioa, hasiera-datatik zenbatuta, baldin eta kreditua badago.
 - a) Preskripzioko tratamenduaren iraupena 10 egunekoa edo gehiagokoa bada: preskripzioa aktibo dagoen bitartean jaso ahalko da medikazioa (amaiera-egunera arte), baldin eta kreditua badago. Esate baterako,

preskripzioaren iraupena bizpahiru hilabetekoa bada eta, hortaz, zenbait emate badaude eskuragarri, medikazioa jasotzeko aurreikusitako hurrengo data baino hamar egun lehenagotik jaso ahalko da.

Oharra ikusteko, [sakatu hemen](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

6 2025-2027 PRAN BERRIA

Medikamentuen eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak (AEMPS) koordinatutako Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionalaren (PRAN) hamargarren urteurrenean, [2025-2027 aldirako Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionala](#) argitaratu da.

Helburua da beste hiru urtez eskaintzea gizakion nahiz animalien osasuna mehatxatzen duten mikrobioen aurkako erresistentziak areagotzeko arriskuari aurre egiteko esparru estrategikoa; izan ere, arriskuan jartzen dituzte infekzio eta gaixotasunen aurkako tratamendu eraginkorrak.

- Giza osasunari dagokionez, indartuko da antibiotikoen kontsumoaren zaintza.
- Aurreikusitakoaren arabera, animalien osasunari dagokionez, Antibiotikoak Optimizatzeko eta Zentzuz Erabiltzeko Programak (PROA) ezarriko dira, Europako ekintzei jarraikiz.
- Ingurumenari dagokionez, Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionalaren PRAN-MA proiektuaren hirugarren fasea osatuko da.



Orain arte, Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionala sortu zenetik, giza osasunaren alorrean % 17ko murrizketa erregistratu da antibiotikoen kontsumoan, eta animalien osasunaren alorrean, berriz, % 69,5eko murrizketa. Europan, albaitaritzako antibiotikoen kontsumoa gehien murriztu duen lehen herrialdea da Espainia, eta giza osasunean gehien murriztu duen hirugarren herrialdea.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

7 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC buletin berria: “Adinekoen insomnioa maneiatzea”

Adinekoen insomnioa maneiatzeko esku-hartzeak berrikusi dira buletin honetan, eta arreta berezia jarri da tratamendu farmakologikoen efikazia nahiz segurtasunaren gaineko ebidentzian. Alabaina, gomendio gehienak biztanle heldu guztientzat izan daitezke baliagarriak.

Dokumentuen estekak:

- [Buletina](#)
- [Aurkezpena](#)

EAEko Farmakozaintzako buletin berria

EAEko Farmakozaintzako [61. buletina](#) argitaratu da. Besteak beste, honako gai hauek jorratu dira:


- Farmakoak eta dastamenaren alterazioak
- EAEko Zentinela Farmazien Sarea martxan jartzea
- Medikamentuei buruzko oharra: dupilumabaren erabilera eritema multiformean; transplante-osteko tratamendu immunoezabatzaileari lotutako miokardiopatia hipertrofikoa.

- Fitxa teknikoaren eguneraketa segurtasun-arrazoiak direla-eta: Farmakozaintzako Arriskuak Ebaluatzeko Europako Batzordearen (PRAC) gomendioak:



Infografia berria Espainiako Lehen Mailako Arretako Farmazialarien Elkartearen (SEFAP) blogean Ba al dakizu zer den aknea eta nola tratatzen den?

SEFAPek herritarrei zuzendutako medikamentuei buruzko 40. infografia argitaratu du. **Ba al dakizu zer den aknea eta nola tratatzen den?** Akneari buruzko funtsezko alderdi batzuk jaso dira infografian: kausak, motak eta tratatzeko modua.



[PDF interaktiboko formatua](#)

[Aurkezpen interaktiboko formatua](#)

SEFAPen infografia hau eta beste batzuk [webgunean](#) dituzue eskuragarri.

ADHN tratatzeko medikazioak dituen albo-ondorioak lehen mailako arretan maneiatzeko gida

British Journal of General Practice (BJGP) aldizkarian, [gida bat argitaratu da ADHN tratatzeko medikazioak dituen albo-ondorioak lehen mailako arretan maneiatzeko buruz](#). Medikamentuen segurtasunari buruzko aholku praktikoak jaso dira gidan, bai eta pazienteak bigarren mailako arretara deribatzen diren buruzko informazioa ere.

Giza Erabilerako Medikamentuen Hornidura Bermatzeko Plana (2025-2030)

AEMPSek [Giza Erabilerako Medikamentuen Hornidura Bermatzeko Plana \(2025-2030\)](#) argitaratu du, medikamentuen hornidura-katea sendotze aldera. COVID-19 pandemiaren esperientzia jaso da planean, eta egon daitezkeen osasun-krisien aurrean hobeto erantzuteko neurriak ezarri ziren.



[HASIERA-ra Itzuli](#)

8

ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUEI BURUZKO HILABETEKO BERRITASUNAK

Hauek dira uztaileko berritasunak:

2025 uztaila		
	Tapentadol hidrokloruroa	Yantil retard® 25, 50, 100, 150 eta 200 mg, konprimatuak. Indikazioa zabaltzea: - min kroniko bizia kontrolatzeko 6 urtetik gorako haurretan eta nerabeetan , analgesiko opioide batekin bakarrik tratatu daitekeena. Fitxa teknikorako esteka
	Estriola	Ovestinon® 1 mg/g baginako krema. Finantzatutako indikazio berriak: - baginako estrogenoen eskasia-sintometarako tratamenduan: menopausia-ostean dauden emakumeen estrogenoen eskasiaren ondoriozko baginako atrofia-sintometarako tratamendua. - baginako kirurgiari dagokionez, menopausia-ostean dauden emakumeen ebakuntza aurreko nahiz ebakuntza ondoko terapian. - zalantzazko umetoki-lepoko frotis atrofikoetarako (Papanicolau) laguntza diagnostikoa. Fitxa teknikorako esteka

Indikazioa, finantzaketa edo preskripziorako eta emateko baldintzak zabaltzea.

2020ko urtarritetik aurrerako berrikuntzak biltzen dituen [dokumenturako esteka](#).

[HASIERA-ra Itzuli](#)

9

MEDIKAMENTUEN HORNIDURA-GABEZIAK ETA - BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIARIK garrantzitsuenak:


- Nebibolola, erroflumilasta, sudurreko sumatriptana, glargina intsulina (marka batzuk), aripirazola

Reboxetina 4 mg (Irenor®, Norebox®), Klomipramina 25 eta 75 mg (Anafranil®): atzerriko medikamentu gisa eskatu daitezke. Ez da txosten medikorik behar. Nahikoa da pazienteak tratamendu aktiboa izatea Presbiden. Erabiltzaileek beti joan behar dute OTIarekin.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- Tiaprida injektagarria, oktreotida, tizanidina, glukagoia, eberolimusa

PRESBIDEn "Hornidura-gabezia" botoia eskuragarri dago, "Preskripzioen kontsulta" pantailaren beheko aldean, hornidura-gabeziei buruzko informazio erabilgarria erakusten duena.



Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- Presbiden: [Hornidura-gabezien taula](#)
- CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuen hornidura arazoak](#)

[HASIERA-ra Itzuli](#)

10

ALDAKETAK LEHEN MAILAKO ARRETA KO ZENTROETAKO SENDAGAIEN KATALOGOAN

Aldaketa hauek egin dira katalogo honetan: [LEHEN MAILAKO ARRETA KO ZENTROETAN ERABILTZEKO ESKURAGARRI DAUDEN SENDAGAIK](#):

- Moviprep hautsa ahozko disoluziorako zorroak laranja zapore (N.K.: 673610) Moviprep hautsa ahozko disoluziorako zorroak limoi zaporeak ordezkatu du (N.K.: 656284)
- Enantyum injektagarria 50 mg anpoilak (N.K.: 619239) ordezkatu du Dexketoprofeno Normonek 50mg/2ml anpoilek (N.K.: 606135)
- Nolotil 575 mg kapsulak (N.K.: 604298) Metamizol Normonek 575 mg kapsulek ordezkatu du (N.K.: 624817)
- SUPOFEN 10 mg/ml perfusiorako soluzioa 100 ml (N.K.: 607696) ordezkatu du Paracetamol Altanek 10 mg/ml perfusiorako soluzioak
- Dexclorfeniramina Comb 5mg/ml 1 ml-ko anpuluak (C.N.: 687499) ordezkatu du Polaraminek 5mg/ml 1 ml-ko anpulek (C.N.: 813071).

Bestalde, apirileko farmahitzak dokumentuan aipatu zen bezala, azido azetilsalizilikoa 300 mg 30 pilula merkaturatzeari utzi zaionez, lehen mailako arretako biltegian izakinak amaitzen direnean, espezialitate hori ez da eskuragarri egongo biltegian, eta "azido azetilsalizilikoa 100 mg 100 pilula jarriko da haren ordeiz, Adiro 100 mg 100 konprimitu (N.K.: 607110) hain zuzen.

Azkenik, jakinarazten da **Inyesprin 900 mg biala** (C.N.: 601104) hornidurarik gabe dagoenez, atzerriko sendagaia baino ez dagoela, 2025eko uztailen iraungita. Horregatik, ez da beharrezkoa itzultzea berriro abisatu arte, erabilgarri dagoen bakarra baita.

[HASIERA-ra Itzuli](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia

ARABAKO ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

Farmazialariak: Arantza Hernández, Javier Martínez, Inés San José eta María Prieto.



Argitalpen honen edukia Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da FarmaHitzak buletinak Osakidetzaren intranetean daude eskuragarri hurrengo [estekaren](#) bidez